

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Punka, melodia, zakarkeria eta umorea

Plan B hirukotea Barley Juice talde donostiarraren errautsetatik jaio da, baina atzean Mundu dago; abeslari eta gitarra jotzailea, eta bi proiektuen motorea. Munduk punk-rocka maite du, baina beretzat zeresan berezia daukate ahotsean melodia handia duten taldeek. Bi osagai nagusi horiek erabilia, hainbeste miresten dituen Commando 9mm edota MCD gogora ekartzen dizkigu talde honek. Hitzek punkari buelta erdi ematen diote, taldekideek gauza asko ikusi dituztenaren erakusle. Gai dira esaldi zakar eta erasokorrena idazteko, nihilismoan jausteko edota umorearekin jolasteko. Nabarmenezkoa, adibidez, *España se muere* hit-a, Espainiako Erresumak bizi duen garai dekadentearen ispilu. Talde berria den arren –lehenengo lana dute– igartzen da musikariet gazuzak argi dituztela, eta disko gomendagarria eta freskoa egin dute.



Ver oír callar
Plan B

PUZKARRA RECORDS

Iraupena: 29'19"
7 euro

PLAN B

«Egunean hainbat alditan jendea inozoa dela konturatzen naiz»

Zer gelditzen da Barley Juice taldetik Plan Bn?

Bi taldekide. Proiektu berria da, aurrekoaren jarraipena. Abestiak ere oso antzekoak dira, eta egilea bera da. Aldatu dena baxu jotzailearen ukitua da.

Bateriak nabarmenezko beharra zeukan grabazioan?

Hala irten da. Dena dela, normalean hala egiten dugu: hirukotea izanda, garrantzia handiagoa ematen diogu bateriari eta baxuari, gitarrak hainbeste nabarmendu gabe.

Zer egiten duzue Puzkarraren label *bardulo*-an?

Dirua guk jarri dugu, diseinua ere gurea da, baina arazoa da diskoa mugitzea. Puzkarrarekin harremanetan jarri eta 200 kopia pasa genizkien. Harreman ona dugu, badakigu zintzoak direla eta ondo egiten dutela lan.

“No me creo tus canciones, ni siquiera tus versiones” (“Ez ditut zure kantak sinesten, ezta zure bertsioak ere”). Gaur egungo taldeek sinesgarritasun txikia dute?

Bai. Lehen taldeak entzun, ikusi eta identifikatu egiten zinen beraiekin. Baina gaur egungo taldeak soinuaz arduratzen dira, eta oso gauza gutxi dute kontatzeko. Musika lehiaketa bihurtu da. Galdu da taldeen pertsonalitatea: denek itxura, musika eta bertsio berak.

Oso esaldi punkak dituzue: “Vuestras cabezas piden plomo a gritos y el mundo está superpoblado” (“Zuen buruek beruna eskatzen dute oihuka eta mundua gainpopulatua dago”).



Egunean hainbat alditan jendea inozoa dela konturatzen naiz. Halakoetan, gauza zakarrenak esan nahi ditut, eztanda egin. Askok uste dute hori polizia edo politikariet zuzenduta dagoela, baina inguruko batzuek horiek baino kalte handiagoa egiten digute, errudunagoak dira. *Ver oír callar* (“Ikusi entzun isildu”). Zer esan nahi duzue?

Hainbat irakurketa ditu: musika estiloen etengabeko errepikatze gogaikarriaren gainekoa; baita ere, jendeak gehiegi hitz egiten duela. Batzutan isildu egin behar da, eta dakienari entzun, edozein txorakeria esan beharrean. Zer da garrantzitsuagoa, umorea ala kritika?

Lehen kritikarekin erraza zen eskandalizatzea, baina gaur egun oso zaila da. Umorea askoz subertsiboagoa da.